

KALEKO AFARI SOLIDARIOAK, AUZOLANA ETA ELKARTASUNA

Kaleko Afari Solidarioak herri ekimenak afaria eskaintzen die, egunero, kalean bizi diren hainbat pertsonari. Donostiako Alde Zaharrean hasi ziren laguntza hau ematen, pandemia garaian, eta egun Egia eta Amara auzoetan ere elkartzen dira.

Auzolana eta elkartasuna bizirik daudela erakusten du Kaleko Afari Solidarioak herri mugimenduak. Duela hiru urte inguru abiatu zen, auzotar talde txiki bat kale gorrian zeuden pertsonen laguntza eskaintzeko antolatzen hasi zenean. Hainbat lagunek Donostiako Konstituzio plazan lo egiten zutela ohartuta, gauero afaria ematen hasi zitzaizkien egoera hori samurtu nahian. Harrezkero, egunero biltzen dira plaza horretan, jaiegunetan nahiz lanegunetan, eguraldia edozein dela ere. Ez dute egun bakar batean ere hutsik egin.

Pixkanaka, boluntario kopurua hazi egin da, eta orain 100 inguru dira. Gainera, azken bi urteetan, ekimena Egia eta Amara Berri auzoetara zabalduta. Otorduak¹ kozinatzeak, prestatzeak eta banatzeak eskatzen dituen lana, denbora eta dirua ez dira nolanahikoak. Hori gutxi balitz bezala, ahalegin eta inbertsio hori erakunde publikoen inolako laguntzarik gabe eraman dute aurrera. Joan den urtearen amaieran eskaini zuten prentsaurrekoan azaldu zuten, ordura arte, guztira, 67.000 afari eman, 134.000 euro gastatu eta 14.000 ordu egin zuten lan, gutxi gorabehera.

Banaketari dagokionez, Egiako afarien prestaketa Gros auzoko Marruma elkartearen egiten dute arratsaldero. Pertsona bakoitzaren errazioa prestatzen dute: eguneko janaria, ogia, postrea, ahozapia² eta mahai tresnak. Iluntzean, 20:30ak aldera Kalkutako Teresa plazako trenbide azpira hurbiltzen direnerako, kalean bizi diren pertsonak zain izaten dituzte, eta ilara berehala osatzen dute afaria jasotzeko. Haiekin sortzen diren harreman motak askotarikoak dira. Hala ere, ez da ohikoa, kalean bizi den jendeak soinean daraman estigma ez baita nolanahikoa. Alde batetik, kalean nahi dutelako daudelako ideia oso zabalduta dago, aterpeei³ uko egiten dietela, alegia.

Egoera lazarri⁴ honek guztiak ez ezik, proiektuaren izaerak ere hausnarketarako bidea ematen du. Izan ere, boluntarioen jarduna karitatea dela pentsa dezake batek baino gehiagok, hau da, hierarkiaren arabera ematen den limosna modukoa. Ekimeneko kideek argi dute parekotasunean oinarrituriko laguntza eskaintzen dutela, berez gizarteak erakunde publikoen bidez egin beharko lukeena.

Aizu aldizkaria, 2023ko martxoa (moldatua)

(1) Otordu: gosari, bazkari, askari edo afari; (2) ahozapi: *servilleta*; (3) aterpe: *albergue*; (4) lazarri: izugarri, ikaragarri, oso gogor.

GALDERAK (OHARRA: Parentesi arteko zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du)

• **1. ATALA**

1.1.- Eman hitz hauen kasua eta numeroa: *auzoetara* (10), *elkartean* (15), *aterpeei* (20), *proiektuaren* (21). (puntu 1)

Ondoko bi ariketetatik, aukeratu bat: (2 puntu)

1.2.- Eman testuinguruan egokia den sinonimo bat: *kale* (5), *aurre* (12), *guzti* (13), *modu* (23).

1.3.- Berridatzi esaldi hauek:

- "... laguntza eskaintzeko..." (5) (_____ -tzearren)

- "... antolatzen hasi zenean." (5-6) (_____ -rakoan)

- "... azaldu zutenez..." (13) (_____ -n bezala)

- "... ez baita ..." (19) (_____ -lako)

• **2. ATALA (Bost galdera hauetatik, erantzun hiru)**

2.1.- Testuaren ulermena. Donostiako zer tokitan ematen dituzte afari solidarioak? (puntu 1)

2.2.- Testuaren ulermena. Nola hasi ziren afari horiek ematen? (puntu 1)

2.3.- Testuaren ulermena. Nor aritzen da zeregin horretan? (puntu 1)

2.4.- Testuaren ulermena. Kalean bizi direnak estigmatizatu egiten ditugu. Zer uste dugu haien inguruan? (puntu 1)

2.5.- Testuaren ulermena. Afari solidarioak banatzen dituztenek diote haiena ez dela karitatea; zer da, orduan? (puntu 1)

• **3. ATALA**

3.1.- Idatzi testuari edota gaiari buruz gutxienez 150 hitz. (4 puntu)